


# ATAUN Turismoa




## 4. IBILBIDE MITOLOGIKOA

ALTUERA MIN.:	469 m.
ALTUERA MAX.:	999 m.
DESNIBELA:	▼ 662 m. ▲ 650 m.
DISTANTZIA:	10,96 km.
DENBORA:	4 ord.
ZAILTASUNA:	errezu


## 4. SARASTARRI

KOBAREN SEKRETUAK



## 4. SARASTARRI

➤➤ URKULLAGAKO GAINA ~ SARASTARRIKO GAINA ~ AGAUZKO GAINA ~ LEIZADIKO GAINA ~ URKULLAGAKO GAINA



Aparkalekua	Gailurra	Puntu mitologikoa	Iturria	Amaiera
Hasiara puntua	Bidegurutzea	Saroia	Leizea/Koba	(Speaker icon)

## ▶ TOPOGIDA

**P. Aparkalekua.** Urkullagako gainean bertan dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa.

**1. Hasiera-puntua.** Urkullagan hasiko dugu ibilbidea, autoak utzi ditugun gune berean. Ekialdera egiten duen pista hartuko dugu, Lareoko urtegiara doana. Hemen Urkullagan badago iturri bat biderako ura hartzeko. ◀▶) ENTZUN: 1. Urkullaga

**2. GR.** Berehala ezkerrean dagoen langa igaro eta eskuinetik sartzen den bidezidorra hartuz GR 20.1aren arrastoak jarraituko ditugu artadian zehar.

**3. Aizkerri.** Bistaratzen dugun lehen pago handian atsedean hartu eta kondairak entzun ondoren pago honen ezker aldetik jarraituko ditugu arrastoak. ◀▶) ENTZUN: 2. Armontaitzen agerraldia

**4. Txulosaroi.** Borda zahar baten arrastoak ezkerretan utziz aurrera egingo dugu. Harrate bat igaroz arrastoak jarraituko ditugu.

**5. Saroia.** Ezker aldetik igaro arrastoei segika. Arrasto hauek jarraitu beharko ditugu askara heldu arte. Lareoko urtegia bistaratzean, askatik gertu gara.

**6. Aska.** Gaineko larrera atera eta ertzeraino igo gabe ekialderantz abiatuko gara zeharka.

**7. Pagadira.** Parez pare Elorretako borda eta saroia daude, eta eskuinean pagadia larrearekin lerro zuzena eginez. Zeharka lerro horretara gerturatuko gara kobara hurbiltzeko bidea bilatuz.

**8. Arrastoak.** Pagadian barneratuko gara arrasto gorriak jarraituz.

**9. Ezkerrera.** Parean zuhaitzean arrasto berdeak eta arrasto gorri-zuri-gorriak topatzean ezkerrera egingo dugu. Berehala da koba.

**10. Sarastarriko koba.** Koba ikusita atzera bidea egingo dugu pagaditik ateraz, eta gainera igoz berriro barneratuko gara harkaitz artean Sarastarriko gainaren bila. ◀▶) ENTZUN: 3. Marimundukoren agerraldia

**11. Sarastarri (989 m).** Ataungo gailur nagusian gaude. Atzera eginez aterako gara eta parean dugun Elorretako bordara hurbildu.

**12. Elorreta.** Mendebaldera eginez gainera aterako gara GR 20.1aren arrastoak hartzeko. ◀▶) ENTZUN: 4. Imatzeneko hiru anaiak eta zezengorria (I)

**13. Agautz edo Muñoaundi (973 m).** Ikusmiraz gozatu ondoren gainaz gain jarraituko dugu Leizadiraino. Tartean dagoen harratetik domo barnealdera jaitsi daiteke (Agauzko harratea). ◀▶) ENTZUN: 5. Imatzeneko hiru anaiak eta zezengorria (II)

**14. Leizadi (946 m).** Erpin geodesiko apurtua dago gain honetan, eta bertatik dagoen paisaia behatu eta jentilen akabera entzun ondoren, atzera buelta emango dugu hasieran behean utzi dugun aska topatzeko. Behin askan garela, hasierako bidea desegitea baino ez dugu, arrasto zuri-gorriak jarraituz. ◀▶) ENTZUN: 6. Jentilen akabera

=1. **Amaiera.** Urkullagako bidegurutzera heltzean amaituko dugu ibilbidea.

## GUNE INTERESGARRIAK



SAROIAK

Artaldeak biltzeko eta gauzez babesteko tokiak dira saroiak eta bertan izaten dira txabolak, artzainen bizi-toki, udaz mendi-larreetara igotzen direnerako. Historikoki ingurune hau izan da Ataungo artzantza gune nagusienetako bat, eta beraz bidean honelako bat baino gehiago topatuko ditugu.



SARASTARRIKO KOKA

Bere baitan osin eder bat (25 x 10 x 3 m) gordetzen duen kobazuloa. Esaunden arabera, dama eder bat agertzen omen da tarteka atarian.



SARASTARRI ~ 989 M

Ataungo gailurretan gailurrena. Domoa ia bere osotasunean eta Aralarko gainak bertatik bertara ikus daitezkeen gailurra. Patxi Ezkiagak ondoko poema utzi zuen bertan bere lagun Juanito Giaren omenez:

*Sastarri, lau haize, mila doinu,  
Bihotzean harri, erraietan ur,  
Sastarri, arima bat, zazpi lanturu,  
Euri, ostadar, tximist eta lur.*